25 EUSKADIKO ORKESTRA 26

# SCHUMANN RESPIGHI









**13** MARZO MARTXOA | 19:30

**Pamplona / Iruña** BALUARTE

**euskadikoorkestra.eus**

Eusko Jaurlaritzako herri-baltzua
Sociedad pública del Gobierno Vasco

# EUSKADIKO ORKESTRA

**KONTZERTINOA**
**CONCERTINO**
Martin Funda

**I BIOLINAK** / VIOLINES I
Xabier de Felipe (1)
Irene Echeveste (4)
José Ignacio Aizpiri
Inmaculada Aramburo
David Carmona
Marie Gaillard
Alexandre Kozouline
Óscar López
Maite Menéndez
Gemma Monton
Larraitz Oiartzabal
Ortzi Oihartzabal
Itziar Prieto
Maialen Rezabal
Cristina Vértiz

**II BIOLINAK** / VIOLINES II
Raquel Cortinas (2)
Xabier Gil (2)
Mikel Ibañez (4)
Maddi Arana
Marie Héloïse Arbus
Amaia Asurmendi
Nathalie Dabadie
Virgile Demillac
Ludwik Hamela
Anne-Marie Harmat
Antoni Kosc
Ricardo Ruiz
Igor Torre

**BIOLAK** / VIOLAS
Delphine Dupuy (2)
Pawel Krymer (2)
Maite Abasolo (4)
Esther Alba
Pascal Arnaud
Natacha Dupuy-Scordamaglia
Justyna Janiak-Krymer
Arkaitz Martínez
Monika Mazur
Sergio Montero
Yann Seyrac

**BIOLONTXELOAK**
**VIOLONCHELOS**
Juan Ignacio Emme (2)
Gabriel Mesado (2)
Flore Lefevre (4)
Karmele Castillo
Natalia Díaz
Misael Lacasta (5)
Jon Larraz
Beatriz Linares
Pascale Michaud

**KONTRABAXUAK**
**CONTRABAJOS**
Arkadiusz Maciejski (2)
Paloma Torrado (2)
Marc Sirera (4)
Victor Bogdanov
Mehmet Sönmez
Pierre Torrent
Guangyao Zhao

**FLAUTAK** / FLAUTAS
Hélène Billard-Alirol (2)
Bruno Claverie (2)
Ander Erburu
Oihana Kontxeso

**OBOEAK** / OBOES
Óscar Diago (2)
Javier Lecumberri (2)
Pascal Laffont
Hervé Michaud

**KLARINETEAK**
**CLARINETES**
Luis Cámara (2)
Juan Andrés Carmona (2) (5)
Stéphane Langlois
Sara Zufiaurre

**FAGOTAK** / FAGOTES
Carlos González (2)
François Proud (2)
Yuan Dai
Anne Charlotte Lacroix

**TRONPAK** / **TROMPAS**
Marcos Cruz Pardeiro (2)
Adrián García Carballo (2)
Cristian Palau (2)
Jean-Luc Casteret
Álvaro Parrón (5)
Xabier Sarasa
Marianne Tauzin

**TRONPETAK** / TROMPETAS
Yael Fiuza (2) (5)
Alberto Romero (2)
Jesús Castillo
Miguel Echepare

**TRONBOIAK** / TROMBONES
Arnaud Mandoche (2)
Christophe Sánchez (2)
Sergio Manteiga
Daniel Ruibal

**TUBA**
Oscar Abella (2)

**TINBALAK ETA PERKUSIOA**
**TIMBALES Y PERCUSIÓN**
Anthony Lafargue (2)
Héctor Marqués (2)
Igor Arostegi (3)
Alba Rodríguez (5)

**HARPA** / ARPA
Iván Bragado (2)
María del Mar Anglés (2) (5)

(1) **Kontzertinoaren laguntzailea** / Ayuda de concertino
(2) **Bakarlaria** / Solista
(3) **Bakarlari-laguntzailea** / Ayuda de solista
(4) **Lehen tuttia** / Primer tutti
(5) **Aldi baterako kontratazioa** / Contratación temporal

# SCHUMANN RESPIGHI

**EGITARAUA** ^ PROGRAMA

**I**

**ABESTU EUSKADIKO ORKESTRAREKIN** [13′]
*(+Info: págs. 8-11 or.)*

**Robert SCHUMANN** (1810-1856)
**Biolontxelo eta orkestrarako kontzertua la minorrean, Op.129** [25′]

**II**

**Ottorino RESPIGHI** (1879-1936)
**Fontane di Roma, P.106** [15′]

**Pini di Roma, P.141** [23′]
*Argitaletxea / edita: G. Ricordi & Co.*

1. I pini di Villa Borghese
2. Pini presso una catacomba
3. I pini del Gianicolo
4. I pini della Via Appia



Riccardo **FRIZZA**
***Zuzendaria***
*Director*



Johannes **MOSER**
***Biolontxeloa***
*Violonchelo*

Gaur Euskadiko Orkestran izango diren bi gonbidatuak oso ezagunak dira euskal entzuleentzat. **Johannes Moser** biolontxelojole alemaniar-kanadarra, Berlingo, New Yorkeko edo Los Angeleseko Orkestra Filarmonikoarekin aritu ohi dena, gure Denboraldira itzuli da, azken urteetan egindako bisita arrakastatsuen ondoren, euskal konpositoreen musika jotzera ere iritsi baita. **Riccardo Frizza** zuzendari italiarra izango du lagun; hain zuzen ere, Euskadiko Orkestrak ABAO Bilbao Operaren zulogunean hainbat gau sinfoniko zein operistiko partekatu ditu harekin, eta oraingoan bere herrikide den konpositore honen musika aurkeztuko digu. Baina aurretik, ***Abestu Euskadiko Orkestrarekin*** proiektuaren bigarren edizioaren emaitzak entzungo ditugu. Proiektu horri esker, 130 zaletik gora igo dira agertokira gure orkestrarekin batera, Sorozabalen *Euskalerria*, Bizeten *Carmen* operaren *Martxa eta Korua* edo Vivaldiren *Gloria in excelsis Deo* bezalako pasarte ezagunak abestera (informazio gehiago 8. orrialdetik aurrera).

1850eko irailean **Robert Schumann** Düsseldorfera, XIX. mendearen erdialdean jada industria-gune garrantzitsua zen tokira, iritsi zen. Hiriko Musikdirektor berria zenez, Orkestraren eta Koral Elkartearen ardura hartuko zuen, eta bere obra propioak programatzeko aukera izan zuen. 44 urterekin, Schumannen buru-oreka gero eta delikatuagoa zen; hala, gero eta sarriago txandakatzen ziren konposatzeko ezgaitzen zuten depresio-gertakariak sormen leherkorreko boladekin. Düsseldorfera iristean, bere aldartea bikaina zen, eta horrek ***Biolontxelorako Kontzertua*** bi astetan bakarrik konposatzeko balentria egitea ahalbidetu zion, urriaren 10etik 24ra bitartean.

1830eko hamarkadan biolontxeloa jotzen saiatu zen Schumann, eskuin eskuan izandako lesioaren ondorioz pianista karrera zapuztu zitzaionean. Schumannek asko estimatzen zuen instrumentuaren izaera *kantabilea*; eta, hori horrela, birtuosoa baino izaera lirikoagoa zuen kontzertua planteatu nahi izan zuen. Hasiera batean *Konzertstück* (kontzertu pieza) izenburuarekin, etenik gabe kateatzen diren hiru mugimendu ditu, eta lehen mugimenduko gaiak eta motiboak beste bietan eraldatuta agertzen dira berriro, horrela, batasun handia sortuz konposizio materialetan, mugimendu bakoitzak oso nortasun desberdina duen arren.

Biolontxeloaren idazkera fintzeko, Schumannek Robert Emil Bockmühlen laguntza izan zuen, baina musikagileak baztertu egin zituen bakarlariaren zatiari izaera distiratsuagoa ematera bideratuta zeuden argibide ia guztiak. Horrek berresten du Schumannek ohiko kontzertu birtuosotik aldendu nahi zuela: bere eredua Beethovenen pianorako azken kontzertuetakoa izango litzateke, zeinetan diskurtso sinfonikoa eta kontzertantea bat egiten hasten diren, bakarlaria *primus inter pares* bilakatuz. Schumannek erabilitako orkestrazioak, nahiko arinak, kontzertuaren ganbera-dimentsioa ere indartzen du, eta orkestrako kideek, laguntzera mugatu beharrean, etengabe elkarreragiten dute bakarrizketa handiarekin, hori baita, funtsean biolontxeloaren zatia.

Obra 1854an argitaratu bazen ere, 1860an estreinatu zen jendaurrean, Schumannek lau urte hilda zeramatzala. Clara Schumannek laudorioak eskaini bazizkion ere —bera zen askotan senarraren musikaren kritikaririk gogorrena—, zeinak kontzertu hau «erromantizismoz, kemenez, freskotasunez eta umorez gainezka» aurkitzen baitzuen, publikoak hotz hartu zuen eta apenas interpretatu zen hamarkada askotan. Soilik XIX. mendearen amaiera aldera, Alfredo Piatti eta Robert Hausmann biolontxelojole handiei esker, obra kontzertu-aretoetan finkatzen hasi zen eta instrumentuaren errepertorioari egindako funtsezko ekarpentzat hartzen hasi zen.

**Ottorino Respighi**k (jaiotzez boloniarra, baina hala aukeratu zuelako erromatartua) inspirazio-iturri agortezina aurkitu zuen Erroman. 1916 eta 1928 artean bere *Trilogia erromatar* ospetsua konposatu zuen: *Fontane di Roma* (1916), *Pini di Rom*a (1924) eta *Feste romane* (1928), Erroma bertako ur, zuhaitz eta jaien bidez irudikatzen duten hiru poema sinfoniko. Besteak beste, Nikolai Rimski-Korsakov orkestrazioko maisu errusiar handiarekin batera trebatua, Respighik instrumentazio liluragarria erabili zuen lan hauetan, bere garaian orkestra-kolorearen maisu handienetako bat izatera eraman zuena.

1915-16an konposatua eta 1917an Erromako Augusteo Antzokian estreinatua, ***Fontane di Roma*** trilogiako lehen lana eta Respighiren nazioarteko lehen arrakasta handia izan zen. Konpositoreak azaldu zuenez, Erromako lau iturrik iradokitako «sentimenduak eta ikuspegiak» adierazi nahi zituen bere izaera inguruko paisaiarekin hobeto uztartzen den eguneko orduetan. Partitura kateatutako lau ataletan egituratzen da, sinfonia baten mugimendu gisa funtzionatzen dutenak, egunsentitik ilunabarrera arte.

*Valle Giuliako iturriak* egunsenti lanbrotsu eta pastorala aurkezten du, lirismo mantso eta kolore leunekin. Respighik goizeko lainoaren artean aurrera doazen artaldeak irudikatzen ditu, eta orkestra poliki-poliki argitzen den paisaia handi mugiezin bat bezala entzuten da. *La fontana del Tritone al mattino* lanean giroa erabat aldatzen da: musika bizia da, distiratsua, Piazza Barberinin dagoen Berniniren iturriko itsas jainkoa gogora ekarriz. Tronpa deiek uhandreak beren maskor handiei putz eginez irudikatzen dituzte, eta hari- eta zur-jolasek festa-sentsazioa sortzen dute ur-zorrotaden azpian.

*La fontana di Trevi al meriggio* obraren unerik irekiena da: banda-doinuek eta soinu-olatuek itsas zaldiek tiratutako Neptunoren gurdiaren garaipen-pausoa margotzen dute, eguerdi eguzkitsu batean. Orkestrak osotasun nabarmena erdiesten du hemen, Wagnerren kutsu ukaezinekoa. *Fontana di Villa Medici al tramonto*-k giro malenkoniatsu eta kontenplatiboarekin amaitzen du obra, Respighik eguzkia sartzean lorategiak duen lasaitasuna gogora ekarriz.

Zortzi urte geroago, 1924an, Respighik ***Pini di Roma*** osatu zuen, urte berean Augusteo Antzokian estreinatu zena. *Fontane*n hiria uretan zehar ikusten bazen, hemen haria pinu erromatar bereizgarriak dira, eguneko leku eta une desberdinetan kokatutako eszenak laguntzen dituztenak.

*I pini di Villa Borghese* mugimenduak eztanda batekin irekitzen du obra: haurrak soldaduekin jolasean, parkeko zuhaitzen artean korrika eta kantari. Zur altuen, metal distiratsuen eta erritmo ebakitzaileen frenesiak musikalki islatzen ditu haurren jolasak goizeko argipean. Baina, bat-batean, zalaparta itzali egiten da eta entzulea gaueko mundu solemne batera jaisten da *Pini presso una catacomba*n. Sarrerako harien iluntasunak, Respighik zurezko haize-instrumentuetatik ateratzen duen organo-soinuak eta metalak abesten dituzten koralek katakonbetako lehen kristauen kantua iradokitzen dute, erromatar historiaren sakontasunetatik azaleratzen den oroitzapen arkaikoa.

*I pini del Gianicolo* muinoaren gainean zintzilikatutako nokturno bat da, atzealde lanbrotsu eta malenkoniatsu baten gainean melodia zabala marrazten duen klarinete bakarlariarekin. Bukaeran, urretxindor baten kantua entzuten da. Azken koadroan, *I pini della via Appia* izenekoan, Respighik, egunsentian, pinu-iliaren artean galtzada zaharretik poliki-poliki aurrera doan erromatar legio bat irudikatzen du, izugarri desitxuratutako pianisimo batetik, obra Erroma inperialaren ikuspegi loriatsu batekin ixten duen klimax gainezkatu bateraino haziz.

MIKEL CHAMIZO

Los dos invitados que acompañan hoy a Euskadiko Orkestra son bien conocidos por el público vasco. El violonchelista germano-canadiense **Johannes Moser,** que actúa habitualmente con orquestas como la Filarmónica de Berlín, Nueva York o Los Ángeles, está de vuelta en nuestra Temporada tras sus aclamadas visitas de los últimos años, en las que ha llegado incluso a interpretar música de compositores vascos. Le acompaña el director italiano **Riccardo Frizza**, con quien Euskadiko Orkestra ha compartido tantas veladas, tanto sinfónicas como operísticas en el foso de ABAO Bilbao Ópera, y que esta vez nos presentará la música de un compositor compatriota suyo. Pero antes, escucharemos los resultados de la segunda edición de ***Abestu Euskadiko Orkestrarekin***, un proyecto popular que ha facilitado que más de 130 aficionadas/os se suban al escenario junto a nuestra orquesta para cantar fragmentos tan conocidos como Euskalerria de Sorozabal, la Marcha y Coro de la ópera Carmen de Bizet o Gloria in excelsis Deo de Vivaldi (más información a partir de la página 8).

En septiembre de 1850 **Robert Schumann** llegó a Düsseldorf, que ya era un importante centro industrial a mediados del siglo XIX. Como nuevo Musikdirektor de la ciudad, se haría cargo de la Orquesta y de la Sociedad Coral, y tendría la ocasión de programar sus propias obras. A los 44 años, el equilibro mental de Schumann era cada vez más delicado; se alternaban con creciente frecuencia los episodios depresivos que le incapacitaban para componer con rachas de explosiva creatividad. Al llegar a Düsseldorf su estado de ánimo era radiante, y esto le permitió realizar la proeza de componer el ***Concierto para violonchelo*** en tan solo dos semanas, entre el 10 y el 24 de octubre.

Schumann, que había probado a tocar el violonchelo en la década de 1830, tras la lesión en la mano derecha que frustró su carrera como pianista, apreciaba mucho la cualidad *cantabile* del instrumento y quiso plantear un concierto de carácter más lírico que virtuoso. Titulado inicialmente *Konzertstück* (pieza de concierto), consta de tres movimientos que se encadenan sin interrupción, y los temas y motivos del primer movimiento reaparecen transformados en los otros dos, creando así una gran unidad en los materiales compositivos a pesar de que cada movimiento tiene una personalidad muy distinta.

Para refinar la escritura del violonchelo, Schumann contó con la ayuda de Robert Emil Bockmühl, pero casi todas las indicaciones de este, destinadas a otorgar un carácter más brillante a la parte solista, fueron ignoradas por el compositor. Esto reafirma que Schumann quería apartarse del concierto virtuoso al uso: su modelo sería más bien el de los últimos conciertos para piano de Beethoven, en los que los discursos sinfónico y concertante comienzan a confluir, haciendo del solista más bien un *primus inter pares*. La orquestación empleada por Schumann, relativamente ligera, refuerza también la dimensión camerística del concierto, ya que los miembros de la orquesta, en vez de limitarse a acompañar, interactúan constantemente con el gran monólogo que es, en esencia, la parte del violonchelo.

Aunque la obra se publicó en 1854, su estreno público tuvo lugar en 1860, cuando Schumann ya llevaba cuatro años fallecido. A pesar de las alabanzas que le dedicó Clara Schumann —a menudo la más feroz crítica de la música de su marido—, quien encontraba este concierto rebosante de «romanticismo, brío, frescura y humor», el público lo recibió con frialdad y durante varias décadas apenas se interpretó. Solo hacia finales del siglo XIX, gracias a grandes violonchelistas como Alfredo Piatti y Robert Hausmann, la obra empezó a consolidarse en las salas de concierto y a ser reconocida como una contribución esencial al repertorio del instrumento.

**Ottorino Respighi**, boloñés de nacimiento pero romanizado por elección, encontró en la ciudad eterna una inagotable fuente de inspiración. Entre 1916 y 1928 compuso su célebre *Trilogía romana: Fontane di Roma* (1916), *Pini di Roma* (1924) y *Feste romane* (1928), tres poemas sinfónicos que retratan Roma a través de sus aguas, sus árboles y sus fiestas. Formado, entre otros, junto al gran maestro ruso de la orquestación, Nikolai Rimsky-Korsakov, Respighi

desplegó en estas obras una instrumentación deslumbrante, que lo llevó a ser considerado en su época como uno de los grandes maestros del color orquestal.

Compuesta en 1915 16 y estrenada en 1917 en el Teatro Augusteo de Roma, **Fontane di Roma** fue la primera obra de la trilogía y supuso el primer gran éxito internacional de Respighi. El compositor explicó que quería expresar «los sentimientos y visiones» sugeridos por cuatro fuentes de Roma en las horas del día en que su carácter se armoniza mejor con el paisaje que las rodea. La partitura se articula en cuatro secciones encadenadas, que funcionan como los movimientos de una sinfonía, desde el alba hasta el atardecer.

*La fuente de Valle Giulia* al alba presenta un amanecer brumoso y pastoral, con un lirismo contenido y colores suaves. Respighi imagina rebaños que avanzan entre la neblina de la mañana, y la orquesta suena como un gran paisaje inmóvil que se ilumina poco a poco. En *La fontana del Tritone al mattino* el ambiente cambia radicalmente: la música es viva, brillante, evocando al dios marino de la fuente de Bernini en la Piazza Barberini. Los toques de las trompas representan a los tritones soplando sus caracolas, y los juegos de cuerdas y maderas crean una sensación festiva bajo los chorros de agua.

*La fontana di Trevi al meriggio* es el momento más extrovertido de la obra: fanfarrias y oleadas sonoras pintan el paso triunfal del carro de Neptuno, tirado por caballos marinos, en un mediodía soleado. La orquesta alcanza aquí una plenitud de innegable poso wagneriano. *La fontana di Villa Medici al tramonto* cierra la obra con un clima melancólico y contemplativo, con el que Respighi evoca la calma del jardín al ponerse el sol.

Ocho años después, en 1924, Respighi completó **Pini di Roma**, estrenado también en el Teatro Augusteo ese mismo año. Si en *Fontane* la ciudad se veía a través del agua, aquí el hilo conductor son los característicos pinos romanos, que acompañan escenas situadas en distintos lugares y momentos del día.

*I pini di Villa Borghese* abre la obra con una explosión de movimiento: niños jugando a soldados, corriendo y cantando entre los árboles del parque. El frenesí de las maderas agudas, los metales brillantes y los ritmos incisivos traducen musicalmente los juegos infantiles bajo la luz de la mañana. Pero, de pronto, el bullicio se extingue y el oyente desciende a un mundo nocturno y solemne en *Pini presso una catacomba*. La oscuridad de las cuerdas en la introducción, el sonido organístico que Respighi extrae de los instrumentos de viento madera, y los corales que entonan los metales sugieren el canto de los primeros cristianos en las catacumbas, un recuerdo arcaico que emerge desde las profundidades de la historia romana.

*I pini del Gianicolo* es un nocturno suspendido sobre la colina del Gianicolo, con un clarinete solista que dibuja una amplia melodía sobre un fondo nebuloso y melancólico. Al final, se escucha el canto de un ruiseñor. En el último cuadro, *I pini della Via Appia*, Respighi imagina al amanecer una legión romana que avanza lentamente por la antigua calzada entre filas de pinos, creciendo desde un pianísimo desdibujado hasta un clímax desbordante que cierra la obra con una visión gloriosa de la Roma imperial.

MIKEL CHAMIZO


**Hurrengo kontzertu sinfonikoa / Próximo concierto sinfónico**

**14**
apirila
abril
**19:30**

RACHMANINOFF
BARTOK

**SARRERAK / ENTRADAS**
**10€ < 40€**
euskadikoorkestra.eus
baluarte.com
Leihatila - Taquilla

AZKEN ORDU
**GAZTEA!**
**10€**


Abestu 2
EUSKADIKO ORKESTRArekin
EUSKADIKO
ORKESTRA



Gaur **Abestu Euskadiko Orkestrarekin** proiektuaren bigarren edizioaren emaitza aurkeztuko dugu. Proiektu honetan abeslari ez profesionalek eszenatoki gainean Euskadiko Orkestrarekin bat egiteko aukera paregabea dute.

Euskadiko Orkestrak 132 ahots hautatu zituen zozketa bidez 2025eko abenduan. Parte hartzeko baldintza bakarrak izan dira gutxieneko musika-prestakuntza izatea, partiturak irakurtzen jakitea eta aurreikusitako 10 entseguetara ahalik eta gehien joatea. Horiek urtarrilaren 14an hasi ziren elkartzen orkestrak Miramonen duen egoitzan, eta astero egin dira bi hilabetez. Entseguetako azken fasean, Easo Abesbatzako 40 kidek egin dute bat herritarren abesbatzarekin laguntza emateko, eta lan hori ere egingo dute eszenatoki gainean kontzertuetan.

600 pertsonak baino gehiagok eman zuten izena ekimen honetan, eta hautaketarako ahots soprano, mezzosoprano, kontralto, tenor eta baxuen nahasketa orekatua eta askotarikoa bilatu da. Parte-hartzaileen %48 emakumeak dira eta %52 gizonak. Ahotsen aukeraketan ere belaunaldi ugariren parte-hartzea lortu da: parte-hartzailerik gazteenak 20 urte ditu eta zaharrenak 77. Parte-hartzaileen batez besteko adina 51 urtekoa da, gutxi gorabehera.

Hoy presentamos el resultado de la segunda edición de **Abestu Euskadiko Orkestrarekin**, un proyecto participativo en el que cantantes no profesionales tienen la oportunidad única de unirse a Euskadiko Orkestra sobre el escenario.

Euskadiko Orkestra seleccionó en diciembre de 2025 por sorteo a 132 voces, cuyos únicos requisitos de participación han sido tener una mínima formación musical, saber leer partituras y cumplir con la máxima asistencia posible a los 10 ensayos previstos. Estos se iniciaron el pasado 14 de enero en la sede de la orquesta en Miramon y se han realizado cada semana durante dos meses. En la última fase de los ensayos, se han unido al coro ciudadano 40 miembros del Coro Easo para dar apoyo, labor que también realizarán en los conciertos sobre el escenario.

En la convocatoria abierta se inscribieron más de 600 personas, y para la elección de las voces se buscó una mezcla equilibrada y variada de voces sopranos, mezzosopranos, contraltos, tenores y bajos. El 48% de participantes son mujeres y el 52% hombres. En la selección de voces también se ha conseguido una importante variedad de generaciones: la participante más joven tiene 20 años y el mayor 77. La edad media de las y los participantes es de 51 años, aproximadamente.

Abestu 2
EUSKADIKO ORKESTRArekin

## *EGITARAUA ^ PROGRAMA*

### ANTONIO VIVALDI (1678-1741)
**GLORIA, RV 589** [3']

I. Gloria in excelsis

### PABLO SOROZABAL MARIEZCURRENA
(1897-1988)

**Euskalerria** [5']

*Argitaletxea / edita: Sociedad General de Autores y Editores*

Letra: Fernando Artola, *"Bordari"*. Pablo Sorozabalek euskarara egokitua. *Ay tierra vasca* (1956) obraren 1978ko moldaketa berria

### GEORGES BIZET (1838-1875)
**Carmen. Les voici, les voici!** [5']

*Libretoa / Libreto: Henri Meilhac, Ludovic Halévy*

## *ARTISTAK ^ ARTISTAS*

**132 HERRITAR-AHOTS**
VOCES CIUDADANAS

CORO **EASO ABESBATZA**

**GORKA MIRANDA**
Abesbatzaren zuzendaria
Director del coro

**LUCÍA ARZALLUS,**
**DAVID DE OLIVEIRA**
Entseguetako laguntzaileak
Colaboradoras/es ensayos

**MIKEL CAÑADA**
Proiektuaren zuzendaria
Director del proyecto



Kontzertu hau ARTIS+ proiektuaren parte da, eta proiektu hau Europako Batasunak finantzatzen du %65ean Interreg VI-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA 2021-2027) programaren bidez.

Este concierto se inscribe en el proyecto ARTIS+, que está cofinanciado al 65% por la Unión Europea a través del Programa Interreg VI-A España-Francia-Andorra (POCTEFA 2021-2027).

artis+ Interreg POCTEFA

Cofinanciado por la UNIÓN EUROPEA
Cofinancé par l'UNION EUROPÉENNE

Abestu 2
EUSKADIKO ORKESTRArekin

## AHOTS PARTE-HARTZAILEAK ^ VOCES PARTICIPANTES

### SOPRANOAK

María Mercedes Alba
Itsaso Aldalur
Francoise Condon
Maialen Eguren
Lydia Galdos
Ainara Garin
Silvia Gil
Itziar Lekuona
María López
Sandra López
Maite Martinena
Maria Mendiola
Ana Renata Pazos
Maite Romay
Rosa María Roy
Belen Uranga

### KONTRALTOAK

Rita Aldabaldetreku
Blanca Aranguren
Gema Arsuaga
Argiñe Cámara
Iasone Cañada
Maite Lasarte
Nora Miranda
Nerea Monforte
María José Rivas
Carmen Salvador
Gema Sistiaga
Maddi Soroa
Miren Urbieta
Aiora Urien

### TENORRAK

Markel Balerdi
Iosu Cendoya
Urtzi Echeverria
Unai Lekube
Jose Antonio Lerchundi
Imanol Intziarte
Xabier Iriondo
Iñaki Ostolaza
Miguel A. Otazu
Koldo Mirena Ostolaza
Pello Sánchez
Txema Txurruka
Iñigo Urrutikoetxea
Jon Villate
Jokin Zubiaur

### BAXUAK

Jose Ignacio Aierbe
Ekain Izaro Aperribai
Iker Ayerbe
Javier Ayerbe
Juan Antonio Barrenechea
Miguel Ángel Erauskin
José Mari Esnal
Imanol Galdos
José Javier García
José Luis González
Victor Goñi
Gorka Gorostiza
Alberto Goyenechea
Fermin Leonet
Esteban Pinilla
Gorka Rikondo
Fernando Ruiz
Xabier Uranga



25 **EUSKADIKO ORKESTRA** 26





ARRIAGA BARTOK BERLIOZ BERNAOLA MENDELSSOHN
MOMPOU MUSSORGSKY PROKOFIEV RACHMANINOFF RAVEL
RESPIGHI SAY SCHMIDT SCHUMANN STRAUSS TCHAIKOVSKY

Miren Urbieta-Vega · Landarbaso Abesbatza · Katharina Müllner · Camille Thomas · Jaime Martín
Rachel Willis-Sørensen · Ana María Patiño · Bomsori · Riccardo Frizza · Johannes Moser
Nikolai Lugansky · Donostiako Orfeoia · Elena Sancho Pereg · Marifé Nogales
Vocalia Taldea · Michal Nesterowicz



**SARRERAK** / ENTRADAS

A partir de **10€** -tik gora

**Tarifa bereziak: kontsultatu deskontuak** / Tarifas especiales: consultar descuentos

**PAMPLONA / IRUÑA - Baluarte / 19:30**

euskadikoorkestra.eus - 943 01 32 32